

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1236

290/2022 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Nagore Olariaga Fernández andreaki Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Alde Zaharreko Lehen Mailako Arretako unitateburu eginkizunak esleitzen zaizkion.

2300/2021 Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Alde Zaharreko Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Nagore Olariaga Fernández andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hari esleitzea Bilbo-Basurtuko ESiko Alde Zaharreko Lehen Mailako Arretako Unitateburu eginkizunak.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Nagore Olariaga Fernández andreaki esleitzea Bilbo-Basurtuko ESiko Alde Zaharreko Lehen Mailako Arretako Unitateburu eginkizunak.

Bigarrena.– Nagore Olariaga Fernández andreak bi eginkizun izango ditu, kudeatzea eta asistentzia ematea, eta Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko gerentearen mende egongo da zuzenean eta hierarkian. Bai Lehen Mailako Arretako Unitateburu funtzioak egin bitartean bai haiek amaitu ostean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarriko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Izendapen honek ez dakar berekin, inolaz ere, Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren eginkizunak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da eginkizun horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Interesdunak, eginkizun horietan diharduen bitartean, osagarri berezi bat jasoko du erantzukizunagatik.

Bosgarrena.– Izendapen honek 2022ko martxoaren 1ean izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gorajotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2022ko otsailaren 23a.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.